



EBAZPENA (5/2010 esp., EGOITZETAKO FARMAZIA-ZERBITZUAK)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du **EGOITZETAKO FARMAZIA-ZERBITZUEI** buruzko **5/2010** espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, L.A.A., P.A.C, SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA S.COOP eta PHARMAZAZPI, S.L.k ipini zuten salaketa baten ondorioz. Salaketa horren bitartez, Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako jokabideak ustez egin izana salatu zen.

AURREKARIAK

1. 2009ko maiatzaren 4an, L.A.A., P.A.C, M.A.B.k, SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA (S.I.F.) S.COOP enpresaren izen eta ordezkartzan, eta O.P.P.k, PHARMAZAZPI, S.L. enpresaren izen eta ordezkartzan ipini zuten salaketa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (*1-86 folioak*). Honako gertakari hauek azaldu ziren bertan:

Duela bost urte baino gehiagotik Euskal Autonomia Erkidegoko farmaziek farmazia-zerbitzuak ematen dizkiete adineko pertsonen egoitzei. Alde batetik, gutxieneko zerbitzu bat ematen dute, egoiliarren beharrezko araberrako errezetetan azaldutakoa hornituz. Hori farmaziak egiten du zuzenean, eta ezin du beste inork egin. Beste alde batetik, zerbitzu osagarriak ere ematen dituzte, esaterako asteko pastilla-kaxak prestatu, egoitzako osasun-taldearekin elkarlanean aritu, laguntzaileak aholkatu, sendagaien stocka eta iraungitze-datak kontrolatu, farmazia-gastua behar dena izan dadila kontrolatu, etab.

Azken zeregin osagarri horiek zuzenean eman ditzakete farmaziek, edo farmazialari autonomoak edo enpresak kontratatuz, farmaziako beharrezko titulazioa duen pertsona izango dela beti enpresa horren



burua.

2008ko urriaren 28an Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialak, Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofizialak eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarateak, farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta osasun sailarekin lankidetzaren sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena “aldatzeko *hirugarren akordioa*” sinatu zuten. Ondoren, II. eranskina izeneko agiria egin zen, eta baldintza hau ezarri zen adineko pertsonen egoitzei farmazia-zerbitzua eman ahal izateko: zerbitzua farmazia-bulegoek bakarrik ematea, euren bitartekoak erabiliz.

Agiri bi horiek egin ostean, Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofizialak eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarateak zirkular bana egin zuten, eta honakoa adierazi zuten: Alde batetik, farmazia-bulegoek debekatuta dutela adineko pertsonen egoitzetarako farmazia-laguntzako zerbitzuak azpikontratatzeko eta, bestetik, egoitzek euren zerrendetan (horretarako egindako zerrendetan) erregistratutako farmaziekin bakarrik egin ahal izango dutela lan.

2. 2009ko maiatzaren 7an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak antzemandako jokabideak deskribatzeko ohar laburra eta hori oinarritzeko agiriak bidali zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalari, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Zerbitzuaren eskumena adieraziz (87-90 folioak).

2009ko maiatzaren 26an estatuko Lehiaren Batzorde Nazionalak ofizioa bidali zion LDEZri, eta bertan jakinarazi zuen jasotako proposamenari jarraituz Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua jo zela gaiaren berri izateko organo eskuduntzat (92-95 folioak).

3. 2009ko maiatzaren 27an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, informazio erreserbatuaren instrukzio-fasea hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espedita ireki aurretik, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz (96-98 folioak).
4. 2009ko urriaren 28an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak erabaki zuen, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horretan debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egiteagatik zehapen-espedita irekiko zela BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALAren kontra, ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALAren kontra eta GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEAren kontra. Ebazpen horri jarraiki, honakoak dira espedita honetako interesdunak: ARABAKO



SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALA, GIPIZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEA, BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALA, L.A.A., P.A.C, SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA (S.I.F.) S.COOP. eta PHARMAZAZPI,S.L. Bestalde, G.A.C izendatu zen espediente horren instruktore, eta P.A.G. idazkari (451-455 folioak).

2009ko urriaren 29an jakinarazi zitzairen ebazpen hori interesdunei (456-460 folioak).

Halaber, 2009ko urriaren 29an, espedientea irekitzeko probidentziaren berri eman zitzaion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (492-493 folioak).

5. 2009ko azaroaren 13an espedientearen instruktoreak gertakarien berri zehazki ematen duen agiria idatzi zuen, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.
6. Gertakarien berri zehazki ematen duen agiria jaso ostean, interesdunek alegazioak aurkeztu zitzioten honako egun hauetan: GIPIZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEAK 2009ko abenduaren 3an (565-582 folioak); L.A.A., P.A.C., SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA (S.I.F.) S.COOP. eta PHARMAZAZPI, S.L. salatzaileek 2009ko abenduaren 4an (583-589 folioak); ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALAK 2009ko abenduaren 9an (590-634 folioak); eta BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALAK 2009ko abenduaren 10ean (635-654 folioak).
7. 2010eko urtarrilaren 4an, espedientearen idazkariak egindako eginbidearen bitartez, SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA, S.COOP. likidazioan den kooperatiba desegiteari eta likidatzeari buruzko iragarkia sartu zen espedientean. Iragarki hori 2009ko abenduaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (680. folioa). Horrenbestez, pertsona juridiko hori ez da espedienteko interesduna izango.
8. 2010eko martxoaren 24an, zehapen-prozeduraren instrukzioa bete ondoren, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, instrukzio-fasea amaituko zela dekretatu zuen, ebazpen-proposamena idazteko.
9. 2010eko apirilaren 14an, espedientearen instruktoreak ebazpen-proposamena idatzi zuen (795-819 folioak), eta interesdunei jakinarazi zitzairen.
10. Ebazpen-proposamena jaso ostean, interesdunek alegazioak aurkeztu zitzioten honako egun hauetan: GIPIZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEAK 2010eko maiatzaren 7an (1002-1018 folioak); BIZKAIKO



FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALAK 2010eko maiatzaren 10ean (1019-1031 folioak); L.A.A., P.A.C eta SERVICIOS INTEGRALES DE FARMACIA (S.I.F.) S.COOP salatzaileek 2010eko maiatzaren 11n (1032-1037 folioak); eta ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALAK 2010eko maiatzaren 11n (1038-1062 folioak).

11. 2010eko maiatzaren 17an espedientearen instruktoreak txostena egin zuen (1063-1064 folioak), eta egun berean bidali zizkion LDEAri jatorrizko espedientea, aipatutako txostena eta ebazpen-proposamenari egindako alegazioak.
12. 2011ko otsailaren 7an LDEAren idazki bat sartu zen LDEZren erregistroan. Honakoa adierazi zen bertan:

“2010eko maiatzaren 17an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) egindako ofizioa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi (LDEA) honetan. Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 50. artikuluan eta Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duen 261/2008 Errege Dekretuaren 34.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, ofizio horren bitartez 2/2009 zehapen-espedientea bidali zitzaion LDEAri. Espedientearekin batera, txosten bat ere bidali zuen, eta bertan LDEZk egindako ebazpen-proposamena eta interesdunek egindako alegazioak azaldu ziren. Zehapen-espediente hori 5/2010 zenbakiarekin ireki zen LDEAn.

Zehapen-espediente horri dagokionez, LDEA honek jarraian zehaztu diren erabakiak hartu zituen 2011ko otsailaren 1ean egindako osoko bilkuran, eta erabakiok betetzeko eskatu zion LDEZri, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hona hemen erabakiok:

1. Jarraian azaldu diren froga-eginbideak egitea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 13. eta 51. artikuluetan azaldutakoaren arabera, zehapen-prozedura ebazteko LDEA honek kontuan hartu beharreko konbikzio-elementuak osatzearen. Hona hemen:
 - a. *Farmazazpi, S.L. merkataritza-etxeari eta María Martín Parra andreari eskatzea Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonen egoitzekin eta egoitza horietan farmazia-zerbitzuak emateko titularrarekin sinatutako kontratuen fotokopia aurkeztea. Halaber, kontratu horietako bakoitzaren denbora-eremua ere adierazi beharko da.*
 - b. *Agindeia egitea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, honako agiri hauek bidal ditzan:*
 - *Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta osasun sailarekin lankidetzaren bidez, farmazia-zerbitzuak emateko kontratuen sinatutako bakoitzaren denbora-eremua ere adierazi beharko da.*



baldintzak ezartzen dituen hitzarmena.

- *Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta osasun sailarekin lankidetzaren sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmenaren lehenengo eta bigarren aldaketak.*

c. *Agindeia egitea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, "euren baliabideak" esamoldearen esanahia aztertuko duen txostena egin dezan aipatutako hitzarmenaren II. eranskineko 3. puntuan azaltzen den esaldi honi dagokionez: "[...] borondatez parte hartu nahi duten farmazia-bulegoei bakarrik dagokie zerbitzua ematea, euren baliabideak erabilia [...]"*

2. *Zehapen-prozedura administratiboa ebazteko epea etetea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 51.2 artikuluan eta Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duen 261/2008 Errege Dekretuaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraituz, izapide prozesal horren bitartez eskatzen den informazioa beharrezkoa baita zehapen-prozedura ebazteko. Aipatutako zehapen-prozedura ebazteko epea eteteak akordio hau hartzen den egunetik izango ditu ondoreak.*

3. *Agindeia egitea Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, froga-eginbide horiek egin ditzan, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 51.2 artikuluan eta Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesten duen 261/2008 Errege Dekretuaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraituz.*

4. *Agindeia egitea Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, froga-eginbide berriak egitearen ondorioz zehapen-prozedura ebazteko epea etengo dela jakinaraz diezaien interesdunei.*

13. 2011ko apirilaren 5ean, LDEZk egindako froga-eginbideen emaitza bidali zitzaion LDEAri, bai eta interesdunek bidalitako eskaera-idazkien kopia ere.

14. 2011ko uztailaren 6an, LDEAren idazkia sartu zen LDEZren erregistroan eta, horren bitartez, Auzitegiaren 2011ko ekainaren 15eko Akordioaren kopia bidali zen. Akordio horrek honakoa ezarri zuen:

"LEHENENGOA.- LDEZri itzuliko zaio EGOITZETAKO FARMAZIA-ZERBITZUAK izeneko espedientearen ebazpen-proposamena, zehapen-prozedura irekitzeko ebazpena alda dadin, zehapen-prozedura Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiei zabalduz, zuzenbidean egoki diren instrukzio-egintzak egin daitezten.

BIGARRENA.- Agindeia egingo zaio LDEZri, azter dezan ea adineko



pertsonen egoitzetan dauden pertsonen farmazia-laguntzako zerbitzuak ematen dizkieten farmazia-bulegoen Erregistro Publikoen bitartez lurralde-izaerako merkaturak erreserbatzen den lurralde historiko bakoitzeko farmazia-bulegoentzat, adineko pertsonen egoitzetan farmazia-arreta emateari dagokionez, eta ea hori guztia bateragarria den lehiaren defentsari buruzko araudiarekin.

HIRUGARRENA.- Agindeia egingo zaio LDEZri, arestian aipatutako administrazio-prozedura iraungiz gero beste zehapen-prozedura bat ireki dezan gertakari berberen ondorioz eta akordioan parte hartzen duten alderdi guztien kontra.

LAUGARRENA.- Aipatutako akordioak LDEZri eta administrazio-prozedurako interesdunei jakinaraziko zaie.”

15. 2011ko urriaren 14an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, LDEZk egindako ebazpen-proposamena bidali zion LDEA honi. Horren bitartez, LDEZk LDEAri proposatu zion LDEZren 2/2009 zehapen-prozedura (LDEAren 5/2010 zehapen-prozedura) iraungi dela adierazteko eta jarduerak artxibatzeko, zehapen-prozedurak ebazteko ezarrita dagoen hamazortzi hilabeteko gehienezko epea igaro zelako (Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 36. artikulua lehengo atalean dago ezarrita).
16. LDEAk 2012ko otsailaren 28ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Juan Luis Crucelegui Garate jauna zela txostengilea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

17. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak 49.5 artikuluan agintzen du Lehiaren Batzorde Nazionalari dagokiola debekatutako jokaeren arloko zehapen-prozedurak ebaztea.
18. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
19. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen



eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira.

20.LDEZk LDEAri proposatu dio aipatutako 5/2010 zehapen-prozedura ebazteko, iraungi dela adieraziz eta jarduerak artxibatuz, zehapen-prozedurak ebazteko ezarrita dagoen 18 hilabeteko gehienezko epea igaro zelako (Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 36. artikulua lehenengo atalean dago ezarrita).

21.LDEA guztiz dator bat aztertutako espedientearen inguruan LDEZk egindako ebazpen-proposamenarekin, jarraian azalduko diren arrazoiak direla eta.

22.Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 36. artikulua 1. atalean: *“Lehia murrizten duten jokaerengatiko zehapen-prozedura amaituko duen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea hemezortzi hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia hartu zenetik zenbatzen hasita. Epe hori instrukzio-fasearen eta ebazpen-fasearen artean nola banatuko den erregelamendu bidez zehaztuko da”*.

Bestalde, lege beraren 38. artikuluko 1. atalak honakoa dio: *“Debekatutako akordio eta praktiken arloko zehapen-prozedurez ebazteko 36. artikulua lehen paragrafoan zehaztutako gehienezko hemezortzi hilabeteko epea igarotakoan, prozedura iraungi egingo da”*.

Halaber, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 28. artikulua 4. atalak honakoa dio: *“Espedientearen instrukzioa egiteko epea hamabi hilabetekoa izango da hasteko erabakitzen den egunetik hasita. Zehapen-prozedura hastea erabakitzen den egunetik hasita hamazortzi hilabeteko gehienezko epea pasatzeak prozedura horren iraungipena zehaztuko du uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 38. artikulua 1. atalean ezarritakoarekin bat etorritik.”*

23.Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 37. artikulua honakoa dio 1. atalean: *“Prozedura bati buruz ebazteko legez ezarritako gehienezko epeak zenbatzeari uzteko aukera egongo da, arrazoitutako ebazpenaren bidez, ondorengo kasuetan:*

- a. Akatsak konpondu ahal izateko, edozein interesaturi agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai eskatu behar zaionean.
- b. Hirugarrenei edo administrazio publikoetako beste organo batzuei akatsak konpondu ahal izateko, agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai eskatu behar zaionean.



- c. *Europar Batasunarekin edo beste herrialde batzuetako lehiaren arloko agintaritzekin lankidetzan edo koordinaturik jardutea beharrezkoa denean.*
- d. *47. artikuluan aurreikusten den administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkezten denean.*
- e. *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak froga edo jarduera osagarriak egitea erabakitzen duenean, 51. artikuluan aurreikusitakoaz bat.*
- f. *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari iritzia eskatu eta egindako kalifikazio juridikoan aldaketaren bat izaten denean, 51. artikuluan zehaztutako moduan.*
- g. *Amaiera konbentzional bidezko bukaera batera iristeko negoziazioekin hasten denean, 52. artikuluan zehaztutako moduan.”*

24. Espediente hori 2009ko urriaren 28an ireki zuen LDEZk, eta egun horretatik aurrera hasi zen zenbatzen prozeduraren amaiera ekarriko zuen ebazpena egin eta jakinarazteko 18 hilabeteko gehienezko epea. Horrenbestez, 2011ko apirilaren 28an amaitu behar zen epe hori.

Hala ere, gehienezko epe hori eten egin zen 2011ko otsailaren 1etik 2011ko maiatzaren 13ra bitartean, LDEAk erabili egin baitzuen 37.1 artikuluan e) letrak emandako legezko aukera hori. Izan ere, bertan adierazten da prozedura bati buruz ebazteko legez ezarritako gehienezko epeak zenbatzeari uzteko aukera egongo dela, besteak beste, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak froga edo jarduera osagarriak egitea erabakitzen duenean.

Horrenbestez, 2011ko abuztuaren 7an amaitu behar zen ebazpena egin eta jakinarazteko gehienezko epea eta, beraz, dagoeneko iraungi egin da 2009ko urriaren 28an hasitako prozedura.

25. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea bere osagarria izango da, eta honakoa dio lege horren 44. artikulua: “[...] Administrazioa zehatzeko ahalez edo, oro har, esku hartzeko ahalez baliatzen den prozeduretan, interesdunei ondorio kaltegarria edo zorra sortaraz badiezaieke, iraungidura izango da ondorioa. Kasu horietan, iraungidura adierazten duen ebazpenak jarduna artxibatzeke aginduko du [...]”.



Horrenbestez, berriazko iraungipen-adierazpena egin behar da, eta prozedura iraungi dela eta jarduerak artxibatuko direla dioen ebazpena egin beharko du LDEA honek.

- 26.** Hala eta guztiz ere, eta *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992* Legearen 92.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, zehapen-prozedura iraungitzeak ez du besterik gabe norbanakoaren edo administrazio publikoaren akzioen preskripzioa ekarriko, baina iraungitako prozedurek ez dute preskripzio-eparearen zenbaketa geldituko.

Aztertzen gabiltzan kasuan, gaur egun ere indarrean dagoenez farmazia-bulegoen bidez prestazio farmazeutikoa eta osasun sailarekin lankidetzaren sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena, bere horretan jarraitzen dute iraungitako zehapen-prozedura irekitzea eragin zuten gertakariak. Hori dela eta, ez dago preskribatuta administrazio publikoak, lehiaren defentsaren eremuan, interes publikoaren defentsan egindako ekintza.

- 27.** Horrenbestez, LDEZk beste zehapen-prozedura bat ireki beharko du, iraungitakoak zuen helburu berarekin, hitzarmen hori lehiaren defentsarako arauekin bateragarria den aztertzearen. Zehapen-prozedura Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren, Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofizialaren eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearen kontra ireki beharko da, baita Eusko Jaurkitzako Osasun Sailaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alduen kontra ere, guztiek sinatu baitzuten aipatutako hitzarmena eta/edo horren aldaketak.

- 28.** Aurrekoaz gain, LDEZk irekiko den zehapen-prozedura berriaz aztertu beharko du ea adineko pertsonen egoitzetan dauden pertsonen farmazia-laguntzako zerbitzuak ematen dizkieten farmazia-bulegoen Erregistro Publikoen bitartez lurralde-izaerako merkatua erreserbatzen den lurralde historiko bakoitzeko farmazia-bulegoentzat, adineko pertsonen egoitzetan farmazia-arreta emateari dagokionez, eta ea hori guztia bateragarria den lehiaren defentsari buruzko araudiarekin.



EBATZI DU:

LEHENENGOA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena eta, ondorioz, 5/2010 zehapen-prozedura iraungi dela eta jarduerak artxibatuko direla adieraziko da.

BIGARRENA.- Agindeia egingo zaio LDEZri, *beste zehapen-espeditente bat ireki dezan, honen bitartez iraungitzea erabaki den zehapen-espeditenteko gertakari berberen ondorioz, eta Hitzarmenean parte hartu zuten guztien kontra, 27. zenbakiko zuzenbideko oinarrian ezarritakoaren arabera. Era berean, zehapen-prozedura horren bitartez, 28. zenbakiko zuzenbideko oinarrian deskribatutako gertakariak ere aztertu beharko ditu LDEZk, eta hori guztia bateragarria den lehiaren defentsari buruzko araudiarekin.*

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsua, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI